



Alaine Agirrek atzo aurkeztu zuen Donostian bere aurreneko poema liburua. :: i.g.

«Denbora osoan idazten nuen, debekatzen zidatenean ere bai»

'Txoriak etortzen ez diren lekua' liburuan, «poemaz mozarrotu» ditu Alaine Agirrek psikiatrikoko egonaldietako bizipenak

:: N. AZURMENDI

DONOSTIA. Alaine Agirre ez da ospitale psikiatrikoan bi egonaldi egin dituen 26 urteko bermeotarra. Alaine Agirre da haur eta gazteentzako lan ugari eta hiru eleberrri, hiruak sarituak, argitaratu dituen idazlea: 'Odol mamituak' (Elkar, 2014, Zazpikale Sariak); 'X hil da' (Elkar, 2015, Zilarrezko Euskadi Saria), eta argitaratzear daukan 'Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama' (Elkar, 2017, Joseba Jaka saria).

Hori horrela izanik, baina, Alaine Agirrek bi egonaldi egin ditu ospitale psikiatrikoan, eta eritasunak zein egonaldi horiek utzi dute arras-

toa idatzi dituen helduentzako lanetan. Ez, ordea, 'Txoriak etortzen ez diren lekua' poemarioan bezain nabarmen eta zuzena, Ereinen eskutik kaleratu duen liburua, 33 poema biltzen dituena, psikiatrikoan bertan idatzitako testuz baitago osatua neurri handi batean.

Iñaki Aldekoa editoreak aurkezpenean esan zuen «nobedade handia» dela Agirrerren lehen poesia bilduma; ez dela «edozein poema liburu» alegia, hitzak erabili dituelako «benetako gauzak kontatzeko, lehen aldiz izendatzeko».

«Kartzelan estankatuta»

Gaixotasun mentala eta literatura maiz joan dira eskutik. Idazle askok adierazi eta partekatu dituzte hitzen bidez eritasunak baldintzatutako bizipen eta burutazioak. Alaine Agirrek gogoko dituen artean, besteak beste, Silvia Plathek

edota liburu honetan poema bat eskaini dion Anne Sextonek.

Edo Leopoldo Panerok, elkarrizketaren batean «¿cuál es la situación más jodida que puede vivir un hombre?» galdetu ziotenean «el manicomio» erantzun zuenak. 'Manicomio' hitza ez da ia erabiltzen, ez dago zoroetxe gehiagorik, aspaldi honetan ospitale psikiatrikoak daude.

Alaine Agirrerentzat, «kartzela» izan da ospitale psikiatrikoa. «Kartzela hartan sentitzen nintzen estankatuta, iritsiko ez ziren trenen zain, edo pasatzen ziren trenak ezin hartuta. Ospitale psikiatrikoan ahaztu egiten duzu nor zaren», gogoratu zuen zenbait poemaren irakurketarekin osatu zuen aurkezpenean.

Lehendik idazlea izaki –«umetatik sentitu naiz idaztera kondentatuta»–, idatziz erantzun zion egoerari. «Denbora osoan idazten nuen, debekatzen zidatenean ere bai, nortasuna galtzen ari nintzela sentitzen nuelako. Nire asmo bakarra zen idaztea». Ez zuen idatzi eguneroko bat, «segundoroko bat» baizik, txoriak etortzen ez ziren toki hartan «esperantza printzaren bat, txoriren bat» aurkitu nahirik. Aurreneko egonaldian, «idazketa automatiko moduko batean. Gero, testu haiek begiratzen hasi nintzenean, asko ulertu ere ez nituen egiten».

Testu haiei «poemaren mozarroa» jantzi zien. «Poema ez diren poemak» idatzi dituela dio, baina onartzen du formatuak lagundu diola «musika apur bat entzuten musika eta edertasun oso gutxi zegoen tokian, erritmoa kontrolatzen, berbak hobeto aukeratzen eta haien arteko harremanak hobeto moldatzen...».

«Tripetatik» idatziak

Liburua osatzeko sortu du ale berrien bat, baina gehienak «handik, psikiatrikotik, tripetatik, zoramenetik» idatzita daude. Prosazko lanetan baino gordinago. «Kasu honetan ezin izan dut maskararik jarri», azaldu zuen. Eta esperientzia gogorra izan bada ere, «erditzea bezain gogorra», azkenean «esan dezaket idazle sentitzen naizela».

Une haietan, terapeutikoa izan zuen idaztea. Orain, esperientziaren latzena –«lixiba eta antiseptiko usaina zuten maindre latz» haiek bezala– atzean utzita, liburuaren azalera eraman dituzten «zetazko izaren ukitutik» gertuago omen dago, eta hori ere partekatu nahi du irakurleekin.

Zabaldu du, behintzat, sekulako leihoa izena edertu dieten establezimendu horietako gorabeheretara hurbiltzeko. Espantu handirik gabe, poemetara eraman ditu garbitzaile atsegina; sorgin gorrotatua; 'fumadero'ko festak; pazienteen arteko kontuak; botikak; debekuak; giltzak; zigarroak... Gaixotasunari lotutako pasarte gogorrak badaude, gozagarririk gabe kontatuak, baina umorea ere bai, eta ez gutxi.

Oinazea eta itsasoa, Martxel Mariskalen poesiaren bi ezaugarri

:: F. IBARGUTXI

DONOSTIA. Martxel Mariskal Balerdik (Hondarribia, 1964) 'Azken zakatzak' poema-liburua eman du argitara Susa etxearen bidez. Bai editorea –Gorka Arrese– bai Mariskal bat datoz: itsasoa, oinazea eta edertasunaren bilaketa dira liburuko hiru gai nagusi. Idazleak aitortu du aspalditik sufritzen ari den gaitz fisikoa gabe –buruko min kronikoa dauka– ezin dela ulertu liburua, eta poesia sendabide edo aringarri behintzat, gertatzen ari zaiola.

Aita itsasontzi-patroia zuen Mariskalek. Gazterik hil zen, etxean bost seme-alaba utzita.

Martxelek hamabost urte zituela egin zuen lan itsasoa lehenbiziko aldiz. Hemeretzi eguneko marea egin zuen. Ondorengo udetan ere egin zituen marea batzuk. «Itsasoa izan da nire eskola, pertsona egiteko eskola», adierazi zuen idazleak atzoko aurkezpenean.

Makina bat letra egindakoa da Beti Mugan eta Lisabõ musikaldeentzat. 2002an nobela bat plazaratu zuen: 'Me llamo Ezequiel, y así será siempre' (Hiru). Oraingo poema-liburu honek «denbora eskatzen du, esijentea delako».

Poesiaren errebindikazio garbia egin zuen atzokoan: «Poesia, jarrera moduan bizitzaren aurrean. Poesia alboratzen badugu ez gara oso urrutira joango. Bestela, dena izango da utilitarismoa».



AZKEN ZAKATZAK
MARTXEL MARISKAL

Generoa: Poesia.
Argitaletxea: Susa.
Orrialdeak: 136.
Prezioa: 14 euro.



TXORIAK ETORTZEN EZ DIREN LEKUA
ALAINA AGIRRE

Generoa: Poesia.
Argitaletxea: Erein.
Orr.: 68.
Salneurria: 9 euro.

EL OTRO LADO DE LA ESPERANZA
ESCRITA Y DIRIGIDA POR AKI KAURISMÄKI

Oso de Plata
67 Festival Internacional de Berlín
Mejor Director

"Divertida, cautivadora y necesaria"
EL MUNDO

TODOS SOMOS IGUALES, TODOS SOMOS HUMANOS
AKI KAURISMÄKI

HOY ESTRENO

www.golem.es/distribucion

PRÍNCIPE

topic. TOLOSAN TXOTXONGILOAK

Larunbata / Sábado: 18:30etan

LA CANICA
Madril
LA SIRENITA

Gaztelera- Castellano
1etik 4 urtera / De 1 a 4 años

Horizonteaz aratago, itsas barruan, urak duen kolore urdina aiton eder baten petaloen intentsitate berekoa da eta kristal garden bat bezain purua; baina horren sakona da ez dagoela lur zorua ikutuko duen aingurarik. Bertan bizi dira itsasoko biztaleak...

Más allá del horizonte, en alta mar, el agua es de un azul tan intenso como los pétalos azules de un hermoso anciano, y clara como el cristal más puro; pero es tan profunda que ningún ancla llegaría jamás a tocar el fondo. Allí es donde viven los habitantes del mar...

8 ABRIL

Sarrerak - Entradas: WWW.TOPICTOLOSA.COM eta / y TOPICeko leihatilan / Taquilla del TOPIC